

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1773

*EBAZPENA, 2018ko martxoaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu zuzendaria, Euskal Autonomia Erkidegoan lege-gordailua arautzen duen dekretu-egitasmoa jendaurrean jartzeko dena.*

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dekretu-egitasmo bat prestatu du Euskal Autonomia Erkidegoan lege-gordailua arautzeko; Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean zehazten denaren arabera izapidetu behar da proiektu hori.

Lege horren 8.1 artikulua arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoak eragiten dieten xedapen orokorrak, baldin eta, xedapenen izaera aintzat hartuta, hala komeni bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Proiektatutako dekretuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan edozein formatutan editatzen diren lineaz kanpoko eta lineako argitalpenen lege-gordailua arautzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo euskaraz editatzen diren argitalpenena ere.

8/2003 Legearen 8.4 artikulua arabera, jendaurreko informazioaren izapidea nahikoa izango da hogeit hamar egun balioduneko epea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren bidez onartu ziren xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak. Bada, erabaki horretako lehenengo zenbakia 8an xedatzen duenez, hala eskatzen denean, jendaurrean jartzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarriko da, eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa argitaratuz osatuko, 8/2003 Legea betez.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 8. artikuluan xedatuarekin bat, honako hau

### EBAZTEN DUT:

1.– Interesdunei entzuteko izapidearen mende jartzea honako dekretu-egitasmo hau –Euskal Autonomia Erkidegoan lege-gordailua arautzekoa–, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeit hamar egun balioduneko epea.

2.– Agindu horrek ukitu ditzakeen interes legitimoren baten jabe direla uste duten pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatu guztiek kontsultatu dezakete agindu-egitasmo horren espedientea. Horretarako Zerbitzu Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikora jo beharko dute goian adierazitako epearen barruan eta aurkeztu ahal izango dira nahi diren alegazio, agiri eta frogagiri guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 22a.

Zerbitzu zuzendaria,  
CARMELO ARCELUS MÚGICA.